



MINISTÈRE
DE L'ÉDUCATION
NATIONALE,
DE L'ENSEIGNEMENT
SUPÉRIEUR
ET DE LA RECHERCHE

*Liberté
Égalité
Fraternité*

Concours externe BAC + 3 du CAPES

Cafep-Capes

Section Langues régionales : Basque

- 1) Exemple de sujet pour la première épreuve d'admissibilité
- 2) Extrait de l'arrêté du 17 avril 2025

Les épreuves des concours externes du Capes et du Cafep-Capes BAC +3 sont déterminées dans l'[arrêté du 17 avril 2025 fixant les modalités d'organisation du concours externe du certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré](#), publié au Journal Officiel du 19 avril 2025, qui fixe les modalités d'organisation du concours et décrit le schéma des épreuves.

CAPES BAC +3
Sujet 0 / Première épreuve d'admissibilité

En vous fondant sur l'analyse et la mise en résonance des deux documents ci-dessous, et en vous appuyant sur le programme du concours, vous développerez, dans une composition en langue basque, une réflexion structurée.

1. dokumentua / 1er document

“Post tenebras spero lucem”

Obabako auzunerik urrunenak Albania zuen izena, eta ez zeukan ez karreterarik, ez eskolarako etxe berezirik; eta, hala, beste aukerarik ezean, bertako umeek auzuneko ostatuaren goiko bizitzan ikasten zituzten A B C eta gainerako letra guztiak, eta bai halaber non zeuden Dinamarka eta Pakistan, edota zenbat osatzen zuten berrogeita sei eta hogeita zazpi zenbakiek.

Hamazazpi neska eta hamabost mutil ziren, denetara hogeita hamabi ikasle, eta goizero –ardo eta olio zahagiez betetako ezkaratza zeharkatu ondoren– ilara zuzena gordez eta maistrari jarraituz igotzen zituzten aurrena zortzi, gero hamar, hurrena bost eskailera maila, denetara hogeita hiru maila; eta jada pupitre artean, adinaren arabera banatzen ziren gelan: ttikienak aurreneko bankuetan; azkenekoetan, berriz, Dalmau Carles entziklopediari aurre egin behar izaten zioten hamalau urteko adoleszenteak.

Arratsaldeko bostetan amaitzen zitzaien jarduna, eta ilararik gorde gabe, baizik eta zalapartan, jaisten zituzten aurrena bost, gero hamar, hurrena zortzi eskailera maila, denetara hogeita hiru maila, eta beren etxeetara jotzen zuten txokolate eta ogiaren bila, edo bestela labaderora edo ermitaren atarira, jostatzera eta libertitzera.

Arratsaldeko bostetan, beraz, maistra bakarrik gelditzen zen bere arbel aurreko mahai luzean, eta nolaz eta oso gaztea baitzen, eta baita auzune hartara heldu berria ere, nahiago izaten zuen eskolan lanean jarraitzea bere etxetto gris eta txurira joatea baino; ez baitzen hura bere benetako etxea, eta mira bilatzen baitzuen haren lau horma artean sartuta, eta baita bakardade handi bat ere.

Egunak luze egiten zitzaizkion maistrari Albanian, eta gutunak eginez betetzen zituen bere ordu libre gehienak. Eta, batez ere, bere lagunik laguneneri idazten zion:

«Karreterarik ez dagoenez, setiatua bizi nauk hemen, inora ateratzeko modurik gabe –aitortzen zuen estreina egin zionean–. Hona ailegatu eta hurrengo igandean jaitsi ninduan herrira, baina alferrik, zergatik han ez baitago niretzako ezer egokirik. Bakarrik tabernak zeudek han, eta gizonezkoz beteta den-denak. Ez dakik zenbat kostatzen zaidan itsaso barratik ematen genituen paseo haiek gabe bizitzea. Lanbroa izaten dugun arratsaldeetan ohean etzaten nauk, eta hondartzako hizketaldi edo pasadizoak errepassatzera behartzen diat neure burua. Holaxe kontsolatzen naizela, alegia, udako errekuerdoekin. Baina etzakela pentsa, batzuetan eguzkia ere egiten dik, eta mitxeleta bila eramaten dizkiat umeak. Lehengoan, esaterako, *Nymphalis Antiopa* erraldoi bat harrapatu genian, nik sekula ikusi dudana haundiena».

Gutun gehienetan aipatzen zituen mitxeletak eta haien latinezko izenak, zeren jakina baitzitzaion bere ezagutza hark lagunaren artean sortzen zuen mirespen sentimendua. Baina, halere, eguna joan eta eguna etorri, hilabete pasatu eta ez zitzaion inoren erantzunik iritsi; ezta bere lagunik laguneneri zor ziona ere.

“Ez nuen uste hain azkar ahaztuko nindutenik. Lagun ustelak gertatu zaizkit. Ez dute nire beste gutunik jasoko”, pentsatu zuen orduan.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein, 1988

2. dokumentua / 2e document

Monique Laxalt, Iparraldetik Ameriketara joandako euskaldunen biloba, AEBtako mendebaldeko Reno hirian jaio eta hezi zen. Lizeo garaian urte bat pasatu zuen Donibane Garazin bere familiarekin. *Oroitzapen urdin iluna* bere lehen eleberri autobiografikoa da eta egonaldi hura kontatzen du, besteak 3erde.

[...]

Gure familia Ameriketara itzuli baino hilabete lehenago, eskola-urteko bukaeratik aste gutxitara, ekaineko ostiral batean Beatricek [Garazin egin duen lagun hurbilena] berriz ere hitz egin zidan. Ordurako bailararen zati ginen, hari irmo helduta, Gotorlekua [Garaziko zitadela] eta hariztia eta herria gure eskola kideek bezain ondo ezagutzen genituen, eskola kideen maila berdinean, eta gure gurasoak euren azentu dudarik gabe amerikarra zela eta zirikatzen genituen. Horregatik, ekaineko ostiral hartan, mathématique bukaeran bazkalordua baino lehenago, Beatrice mintzatu zitzaidanean ezin zitzaidan otu esaten ari zena ez nuenik ulertzen.

Bazen mutil talde bat. [...] bidean gugana gerturatu ziren. Begikoak ematen zuten, eta gure cartablesak hartu eta eraman zizkiguten, hariztiko bukaeraraino, bidea bitan banatu eta guk etxerako bidea eskuinerantz hartu genuenera arte.

Berriz ere gerturatu zitzaizkigun hurrengo egunean etxera gindoazela, etxartetik at zegoen zubi altxagarri zaharrean, eta futbol partidu batean parte hartzera gonbidatu gintuzten.[...] Esplanadearen zabaleran lasterka ari zirela lehenengo aldiz jabetu nintzen beraien edertasunaz, zabalera berdearen aurka distira egiten zuten begi ilunez, futboleko partiduak beraien azaletara zekarkien gorritasun erakargarriaz, betidanikoa eta garbia eta aienaezina zen edertasun gazteaz jabetu nintzen. Gogoratzen nintzen Ameriketara ezagututako mutilen kolore zatarrak, lurrinik gabeko mutil dutxatu berriez, ordurako aspaldi pasatuta zegoen ikastetxeko urriko dantza hartako mutilez, eta ulertu nuen aitak zer esan nahi zuen, herri honetan pasako genuen

urtea Ameriketara igarotako edozein bigarren hezkuntzako urte baino askoz ere aberasgarriagoa izanen zela zioenean.

Horregatik, Gotorlekutik behera berriz ere aurkitu genituenean eta larunbat eguerdirako eskola amaitu eta gerorako gonbidatu gintuztenean, planak biziki poztu gintuen. [...] Ados geratu ginen ezbaierik gabe, eta gogorra eginen zitzaigun ordura arte itxoitea. Beatricek [...] “On va te violer” hitzak hasperenka ahoskatu zituenean, ikasmahaia txukunduz beherantz begiratzen zuela, Gotorlekuko osina [...] etorri zitzaidan gogorra, guretzat soilik jasotako bioleta delikatu eta purpura biziz dutxaturik irudikatu nuen nire burua. [...]

Larunbateko hamabi t'erdietan, geldituak ginen lekura iritsi ginenean, alegia, Gotorlekuko urruneko muturrean zegoen zubi aspira. [...] Urrunetik ikusi genituen mutilak zubipean. [...] Ahizpa eta biok elkarrekin ibili ginen osin berdearen luzeran, eta gu gerturatu ahala ixildu ziren, beraien aurpegiak denak aldi berean guri so zeuden. Beraiegangandik hiru metrotara geratu ginen ixilik, eta gorantz begiratu gabe ere konturatu nintzen bazeukatela begirada hura, begirada ixil, tinko hura, udazkenean vestibulearen sarrera ilundu zuena.

Beraietako bat mintzatu zenean, gure arteko airean eraikia zen horma hautsiko balitz bezala izan zen, eta gorantz begiratu genuen mintzatzen ari zitzaigunaren aldera. [...] Futboleko baloia lurrera bota eta ostikoa eman zion, [...] Guk, gure cartablesak lurreratu, eta han geratu ginen, baloiari emandako ostikoen hots tartekatua osinetik at irteten zela. Eta bat-batean haietako bat taldetik irten eta souterrainseko sarrera estaltzen zuen hostoetarantz abiatu, eta barnean desagertu zen. Haietako 4.orde batek souterrainsak esploratu behar genituela egin zuen oihu, eta taldekoak hostoetarantz abiatu eta handik sartu ziren, banaka baneratu ziren arrakalatik. Gu kanpoan geratu ginen [...]

Norbaitek souterrain barnetik deitu gintuen, ahots haren soinu gaztea osinean zehar zabaldu zen, giroan zegoen artegatasuna desagerraraziz, berriz ere ekarri zuen euskal udaberriaren lurrin garden garbia. Arratsaldeko liluraz bete gintuen berriz ere, eta ahotsa jarraitu genuen, harresi itzeleko hosto 5erde5n artetik oldartuz.

Orduan dastatu genuen muino 5erde5n azpian zegoen hura, ardo edalontziaren azpi-azpian zegoen hura, kotoiztutako tablier garbi zuriz betetako etxartearen azpi-azpian zegoena, klaseko kiratsean eta vestibuleko 5 erd garratzean eta baita souterraineko 5erd ilun betierekoan ere zegoena, lurrazpian sakon, ixil, irakiten, bizirik zen hura. Souterraineko iluntasunean mutil guztiak ezarri ziren gure gainean, bota gintuztenean lurrezko zoruaeren hezetasuna senti ahal izan genuen, gure gainean vestibuleko izerdi hatsa usaintzen ahal genuen, souterraina bezala betierekoa zena. Oratzea, eta bultzatzea, zapaltzen gintuen pisua, izerdiaren hezetasuna, bortitza eta basatia, sinesgaitza zen indar kaotiko zirimolatsua, muino 5erde5n azpitik ikusezina, hemen souterrainaren barnean sekretupean agertzen zena senti genezakeen.

Baina guregan bazegoen kemena, geronek ere existitzen zenik ez genekiena. Souterraineko iluntasunean 5erde egin zen kemena, urrunetik zetorrena, hautsarekin eta sastrakarekin eta pinu okertuekin zerikusia zuena. Indartu gintuen, gure gorputz atalak indartu zituen, hatzaparka eta kolpeka souterrain kanporako bidea irekitzen genuen eran, eta askatu gintuen, beraietaz askatu gintuen. Apurka-apurka irteerara iristea lortu genuen, arrakalatik at, lortu genuen berriz ere osineko 5erde distiratsura irtetea, eguerdiko eguzki epelera, loratutako basaloreek jariatzen zuten lurrin gozora.

Monique Laxalt, *Oroitzapen urdin iluna*, Utriusque Vasconiae, 2004, 56-60. or.
(jatorrizko bertsioa: *The Deep Blue Memory*, 1993, University of Nevada Press)